

Hizkuntzak eta globalizazioa



Miquel Siguan

Emerituen Eskola Askeko kide aktiboa da. Kieven sortu zenetik, UNESCOren *LINGUAPAX* programa zuzendu zuen, eta, orain, haren ohorezko zuzendaria da. Europako Akademiako kide ere bada. Era berean, urte askotan egindako ibilbidearen aitortza egiteko asmoz, Genevako Unibertsitateak, UPV/EHUk, Sevillako Unibertsitateak eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoak Honoris Causa doktore izendapena jaso da.

Aurrerapen teknikoarekin zerikusia duten hainbat faktoreren ondorioz, gaur egun, ia bat-batekoa izan daiteke informazioaren joan-etorria munduko edozein puntutara, eta erraza eta azkarra, Lurreko edozein punturen arteko salgaien nahiz pertsonen garraioa. Era honetan gertatzen da ekonomiaren globalizazioa. Horrekin batera, gero eta ugariagoak eta sakonagoak dira kulturen arteko harremanak, bai eta biztanleen joan-etorriak ere. Globalizazioaren izenpean biltzen da hau guztia. Aspaldi hasi bazen ere, gure egunotan pixkanaka abiada handiagoa hartu duen prozesu honek mota askotako ondorioak ditu, baina hizkuntzen gain duen oihartzunaz jardungo dut hemen zehazki.

Nazioarteko komunikaziorako hizkuntzak

Globalizazio-prozesuaren ondorio oso argia da hainbat hizkuntzatan mintzatzen diren pertsona asko harremanetan jartzea. Komunikazioa gertatuko bada, solaskide batek, bere lehen hizkuntzaz gainera, bestearen hizkuntzan hitz egiteko gauza izan behar du, edo biek jakin behar dute komunikatzeko balioko dien bigarren hizkuntza bat. Eta asko badira antzeko egoeran diren pertsonak, adostasun inplizitu bat beharko da komunikaziorako zein hizkuntza erabiliko duten erabakitzeke.

Erdi Aroan, europarrek edo, zehatzago esanda, Erromako Elizaren eragin-esparruan bizi ziren europar kultuek hizkuntza bat bera zuten, Irlandatik hasi eta Poloniar bitartean eta Mediterraneotik hasi eta Artikora bitartean: latina. Ilustrazioaren garaian, frantsesa bihurtu zen nazioarteko komunikaziorako lehen hizkuntza. Alemana eta ingelesa elkartu zitzaizkion XIX. mendean, eta, XX. mendearen erdi aldera, gerra handiaren amaierarekin batera, ingelesa bihurtu zen, azkenean, nazioarteko komunikaziorako lehen hizkuntza. Horren ondorioz, munduko biztanle-kopuru handi batek bigarren hizkuntzatzat hartu zuen ingelesa. Eta joera hori areagotzen ari da.

Jazoera hau ez da ustekabea gertatu. Estatu Batuak eta ingeles hizkuntzako gainerako herrialdeak dira botere ekonomikoaren kontzentrazio-gunerik handienak munduan. Globalizazioa ahalbidetzen duten berrikuntza zientifiko eta tekniko gehienak herrialde horietan gertatzen dira; Estatu Batuetan, bereziki. Horrek guztiak ondorio linguistikoak ditu; izan ere, produktu zientifiko eta tekniko horien guztien aplikazioak eta efektuak izendatu egin behar dira, eta horrek ekartzen du etengabe hitz berriak eta hitzen arteko lotura berriak sortzea. Aldi berean, hori erraza gertatu zaio ingelesari, oso hizkuntza malgua baita, berrikuntzak erraz onartzen dituena. Gainera, ez du Akademia mugatzailerik eta, hitz berri baten onespenerako, aski izaten du erabilera bera.

Eta globalizazioaren ezaugarri nagusia ekimen berriak mundu osoan hedatzea denez, ingelesez ezagun bihurtu diren hitzak hartzeko joera dute gainerako hizkuntza guztiek; era horretan, anglizismoz betetzen dira. Egia da zenbait hizkuntzatan –frantsesaren kasuan, bereziki– ahalegintzen direla norbere hiztegian uholde horri eusteko ordeko aukerak bilatzen. Gehienetan, ondorioak apalak izan ohi dira eta, beste hizkuntza batzuetan, ez dira saiatu ere egiten.

Ingelesa nazioarteko komunikaziorako lehen hizkuntza bilakatzeak baditu ondorioak ingelesarentzat berarentzat. Edozein unetan, ingelesez sortzen diren hizkuntza-komunikazioetatik gehien-gehientsuenak, lehen hizkuntzatzat ingelesa ez duten pertsonen artean ematen dira eta, horregatik, kasu askotan, ingeles-maila erraza edo eskasa erabiltzen dute. Egia da, halere, beste hizkuntza batean hitz egiten hasi direnen aldetik erabili izanak batzuetan ondorio positiboak izan ditzakeela, eta, jakina denez, badago Indian edo Kariben jaiotako idazle-belaunaldi bat, ingelesa beren jaiotzako hizkuntza ez izan arren, ingeles literaturaren berrikuntzan indartsu diharduena. Baina, oro har, ingelesa bigarren hizkuntzatzat dutenek ingeles pobreagoa eta akastunagoa erabiltzen dute, ingelesa haurtzarotik hitz egiten dutenek baino.

Garai batean, hizkuntza hegemoniko bat espazioan asko zabaldu eta beste hizkuntza batzuekin harremanetan jartzen zenean, hizkuntza nagusian desberdintasun dialektalak azaltzen hasten ziren, tokiaren arabera. Hala eratorri ziren latinetik hizkuntza neolatindarrak. Ez dirudi ingelesarekin halakorik gertatuko denik. Aurrerapen teknikoei esker, ingelesezko elkarrizketak lehen hizkuntzatzat beste hizkuntza bat duten solaskideen artean gertatzen da, baina Lurraren beste muturrean, urrutian daudenekin. Hortaz, ingeles hizkuntzaren barruko desberdintasunak jada ez dira arrazoi geografikoengatik gertatzen, gaikako espezializazioengatik baizik (negozio- eta finantza-profesionalen ingelesa, zientzialari eta teknikarien ingelesa, informatikariena, ikuskizunetako eta aisialdikoa, kirolariena...).


Hizkuntza gutxituen gaineko presioa. Horiek desagertzeko arriskuak eta bizirauteko baldintzak

Gizakiak hitz egin dituen hainbat hizkuntzaren egoera aldatu egin da mendeetan zehar. Batzuk desagertu ahala, beste batzuk sortu dira. Idazketak egonkortasuna eman zien hori hartu zuten hizkuntzei, baina ez zien iragankortasunik kendu. Gaur egun, globalizazioaren ondorioz, desagertzen ari dira hizkuntza gutxituak eta, denborak aurrera egin ahala, prozesu hori gero eta azkarragoa da. Aspaldian, hasiak dira galtze horren salaketak, espezie bizien galera –animalia zein landare– salatzen den moduan. Oso hitzun gutxiko hizkuntzak izan arren, eta intelektualki gugandik oso urruti egonagatik, errealitatea da munduko hizkuntza guztiek, txikiek nahiz handiek, antzeko kompleksutasuna dutela eta bakoitza kultura espezifikoko baten isla dela.

Baina, salba al daiteke galzorian dagoen hizkuntza bat? Hasiera batean, guztiz posible da. Hizkuntza bat berpiztu ere egin liteke.

Kornubiera hizkuntza zelta bat da, galesa edo irlandera bezala, eta Kornualles eskualdean (Erresuma Batua) hitz egiten da. Badirudi azken hiztuna 1777an hil zela eta haren oroitzapena eruditu batzuek baizik ez zutela jaso. Hizkuntza haren nostalgiko batzuek ikasten hastea erabaki zuten XX. mendearen erdialdera. Haien ereduak jarraitzaileak izan zituen eta, denbora baten buruan, ba omen zen pertsona-talde bat,

elkarrekin hitz egiteko gauza zena. Hurrengo urratsa kornubiera ikasi zuen bikote batekin gertatu zen. Beren artean normalean kornubieraz hitz egitea ez ezik, izango zituzten ondorengoekin ere hitz egitea erabaki zuten. Jarraitzaileak izan ditu ereduak eta gaur bada halakoxe pertsona-talde bat, 200 lagunek baino gehiagok osatua, kornubiera lehen hizkuntzat hartu duena. Hala ere, ingelesez ere hitz egiten dute, horixe baita Kornuallesko biztanle gehienek hizkuntza bakarra.



Kornuallesko toponimia. 1.a kornubieraz eta 2.a ingelesez.

Hebreeraren kasua are ikusgarriagoa da. Jesu Kristoren garaian, ez zuen jarraitu judu-herriaren hizkuntza izaten; liturgian erabiltzeko gelditu zen. Baina, XIX. mendearen erdialdera, berpizte bat izan zuen, hitzez hitz esanda, eta, Israelgo estatuaren hizkuntza ofizial izatera iritsita, milioika hiztun ditu gaur egun. Baina, horiek ohiz kanpoko kasuak dira eta ez dute zerikusi handirik gaur hiltzorian diren hizkuntza gehienekin.

Kalkuluen arabera, munduan sei mila hizkuntza inguru daude, eta hauetatik erdiak baino gehiagok 10.000 hiztun baino gutxiago dituzte. Gehienak Amazonasen arroan, Errusiako estepetan, Ginea Berrian eta Afrikako zenbait eskualdetan bizi dira. Kasurik gehienetan, erabat isolatuta bizi izan diren herrien hizkuntzak dira; esate baterako, Amazoniako oihanetan bizi diren tribu indigenak. Zuhaitzak paper-ore bihurtu eta soildutako lurretan kafe-soroak sartzten dituen gero eta deforestazio handiagoak hautsi die orain isolamendua. Testuinguru berri honetan, bertako hizkuntzetako hiztunak behartuta daude auzo berrien hizkuntzaren oinarriak bederen ikastera, ez baitago inolako itxaropenik etorri berriek bertakoen hizkuntza ikasteko ardurarik izango dutenik; eta, normalean, gazteenak izaten dira, iraun nahi badute, auzo hizkuntzen beharra aitortzen lehenengoak. Egoera berrian bidea egin ahal izateko, antzinako hizkuntza alferrikakoa denaren sentipenak erraz eramaten du haren balioa gutxiestera eta, denbora asko baino lehen, hura bertan behera uztera.

Nola salba liteke hizkuntza hau? Hiztunek beraiek nahi izatea da lehenengo baldintza eta, nortasunaren ikur den aldetik, beren giza taldearen nortasuna eta hizkuntza gorde nahi izatea. Baina gaurko munduan, eta idazketa azaldu zenetik, hizkuntza batek gutxieneko idatzizko erabilera eskatzen du bizirik irauteko. Aurretik, hizkuntza kodetu egin behar da nahitaez; gutxienez, gramatika eta hiztegia finkatu behar dira. Kodetze horri esker irakatsi ahal izango da hizkuntza eta sortuko dira bere erabilgarritasunaren testigantza egingo duten dokumentu idatziak. Jakina, oso zaila da, ezinezkoa ez esatearren, mehatxaturik dagoen hizkuntza horretako hiztunek berez ahalegin hori egitea eta beharrezkoa zaie, tolerantzia ez ezik, baita goragoko instantzia sozial eta politikoen laguntza eraginkorra ere; bestalde, ez dute batere segurtasunik izango laguntza hori jasotzeko. Ehunka lagunek besterik hitz egiten ez duen hizkuntza batean egindako ahaleginak neurritz kanpoko eman dezake, eta, halere, arrakasta ez dago inola ere ziurtaturik. Hiztun-kopuru handiagoak dituen hizkuntza baten kasuan, berriz, ez da gauza ziurra hura babesteko konpromisoa har dezaketen instantzia politikoei ahalegin bat justifikagarritzat har dezaketetik, hizkuntza haren etekin politiko eta ekonomikoak gutxienekoak badira. Egia da, bai, kontrako noranzkoan adibideak badirela. Eskimalen hizkuntzak alde batera utzita egon izan dira aldi batez; baina, gaur egun, ofizialki babestuta daude Kanadan, Norvegian zein Finlandian.

Hain zuzen ere, kasu horiek oso bereziak dira. Hizkuntza gutxi dira eta herrialde boteretsuen babesa dute. Herrialde horiek hizkuntza horiekiko iritzia aldatu dute eta baliabide nabarmenak jarri dituzte haien esku. Horrek erakusten du zaila dela gaur egun arriskuan dauden milaka hizkuntzarekin gauza bera gertatzea.


Informatika eta hizkuntzak

UNIVAC zeritzan lehen ordenagailu elektronikoa 1951n egin zen, AEBko biztanleriaren erroldako datuak aztertzeko. Potentzia handiagotu eta oso azkar garatu zen, eta beste eragiketa administratiboak burutzeko gai bihurtu, baita testuak prozesatzeko ere; horrekin, idazmakina elektrikoaren hedapena gelditu eta etxe ugartan sartzea lortu zuen. Ordenagailuen arteko lehen lotura 1969an finkatu zen eta horren ondorioz garatu zen Internet, sareen sarea: ia-ia neurririk gabe informazioa metatu, kontsultatu eta elkartrukatzeko aukera ematen duen sistema. Hala bilakatu da globalizazio-prozesu deitu diodan horren elementurik garrantzizkoenetakoa.

Jakina da ordenagailuak eta horretan oinarritzen diren sistemek –lehenik, Internetek– ondorio linguistikoak dituztela. Horietako batzuk azalduko ditut.

Ordenagailuek badituzte beren jarduerak arautzen dituzten oinarritzko programa batzuk. Zeinuz osatuta daude, “makinaren hizkera” esaten zaie eta zeinu horietako batzuk hitzak dira; ingelesezko hitzak, jakina. Gauza bera gertatzen da bezeroaren beharren zerbitzura dauden makinaren zenbait jarduera kontrolatzen duten programekin. Baina, horrez gainera, ordenagailuak erabiltzailearekin komunikatu egin behar du, argibideak eman edo zenbait aukeraren artean hautaketak proposatu: “makina-erabiltzailea” deritzan elkarriketa da. Lehen etapa hartan, ordenagailuek ingelesa beste hizkuntzarik ez zuten erabiltzen; baina, ingeles hiztunak ez ziren herrialdeetan eskariak gora egin ahala, beste hizkuntzetan egin behar izan ziren programak. Windowsen oinarritzko programa, adibidez, berrogei bat hizkuntzatan erabil daiteke, baina ekoizle beraren berariazko zenbait programa hizkuntza bakar batzuetan besterik ez daude. Oso espezifikoa edo

berriki sortutakoa den programaren bat, aldiz, ingelesez bakarrik aurki daiteke. Software askearen kasuan –Linux, adibidez–, hainbat hizkuntzatan ekoiztea ez dago arrazoi komertzialen mende, sistemaren aukerak zabaltzeko prest dauden pertsona boluntarioen mende baizik. Baina emaitza bera da: hizkuntzaren arabera, eskaintzaren desberdintze zabala. Adibide zehatz bat jartzeko, ortografia zuzentzeko programak har ditzakegu kontuan, akatsak aurkitzeko eta ordezeko irtenbideak emateko testuak aztertzen dituztenak: gaur egun, Windowsek hirurogei bat hizkuntzatan ematen ditu zuzenketa automatikorako programak.



Baina, informatikaren eta hizkuntzen arteko lotura honetan, badaude garrantzi berezia duten beste alderdi batzuk. Alor honetan erabiltzen den hizkuntza nagusiak, ingelesak, alfabeto latindarra erabiltzen du, Europako hizkuntza gehienek erabiltzen dutena; grezierak, aldiz, alfabeto grekoa erabiltzen du; errusierak eta beste hizkuntza eslaviarrek, alfabeto zirilikoa. Horregatik, agerikoa emango luke, Europako biztanle gehienek, hasieratik, alfabeto berdineko makinak eta, linguistika mailan, programa berdinak erabili ahal izatea. Baina ez da hala. Alfabeto latindarra erabiltzen duten hizkuntzek ez dituzte zeinu berdina erabiltzen. Gaztelaniak baditu bere-bereak dituen zeinuak: “ñ”, galdera eta harridura ikurra hasieran, edo azentu zorrotzak. Beste hizkuntzek zeinu bitxiak dituzte: “ç”, azentu zorrotzak eta azentu zirkunflexuak, dieresiak eta beste zenbaitzuk, ohar hauek idazteko darabilkidan teklatuan agertzen ez direnak.

Erabili zen lehen kodea 128 zeinuz osaturik zegoen (letrak, zenbakiak eta beste zeinu grafiko batzuk), baina ingelesarentzat pentsaturik zegoen, ez besterentzat. Gerora, 256ra bikoiztu zen kopurua eta, orduan, bazeuden gaztelanian erabilitako zeinu gehienak. Eta, 90eko hamarkadan, bestelako adierazpide-sistemak erabiltzen dituzten gero eta Ekialdeko hizkuntza gehiago sartzen ari zirenez, Estandarizaziorako Nazioarteko Erakundeak (ISO) kode berri bat egin zuen: Unicode. Kode berri horretan lehenengo 128 zeinuei eutsi diote eta gainerako 128ak 16 taula desberdinetan biderkatzen dira, Interneten agertzen diren ia hizkuntza guztiak ordezkaturik gelditzeko bidea ematen delarik. Beste kontu bat da Interneteko, posta elektronikoko edo eskuartean erabil dezakegun makinako banaketa-sistemak horiek erabiltzeko prestaturik egotea.

Oraintxe laburbildu dudan bilakaerari lotuta, jazoera adierazgarri bat aipatzeak merezi du. Nazioarte mailako informatikaren lehen garapen haiek ikusarazi zuten gure

idazkerako sistema alfabetikoek, gure ortografiak, elementu irrazional dezente dituztela, eta bazirudien garapen honek indar berria eman behar ziola Europako hizkuntzen ortografiaren arrazionalizatzeko proposamenari. Esan besterik ez, nolako aldrebeskeria den munduko garapenean lehen leerroan dauden japoniar eta txinatar herriak idazkera sistema ideografiko hain konplexuari eusten ahalegintzea, alfabeto-sistema bat hartu beharrean. Baina, kasu hauetan guztietan, arrazionalizatzeko saiakerak egiten benetan hasi baziren ere, laster agertu ziren erreakzio nazionalistak alderdi guztietatik, idazkera-sistemak herri-identitatearen zati direla irizten zutenak.

き 304D	そ 305D	ね 306D	ほ 307D	ろ 308D	ゝ 309D
ぎ 304E	ぞ 305E	の 306E	ま 307E	わ 308E	ゞ 309E
く 304F	た 305F	は 306F	み 307F	わ 308F	ち 309F

Unicode taula

Idazkeraren eta kulturaren gaineko ondorioa

Idazkeraren agerpenak aldaketa handia eragin zuen hizkuntzen existentzian. Ahozko hizkuntza hiztunaren ahotsa heltzen den lekuraino iristen da, ez gehiago, eta hark kanporatzen duen bitartean baizik ez du irauten. Idatzizko testua, berriz, lurraren azken muturreraino irits daiteke, eta mugarik gabe iraun dezake euskarriak irauten duen bitartean. Alabaina, hizkuntza batean idatzitako testua balizko irakurle guztientzat ulergarria izango bada, erabiltzen den hizkuntzaren gramatikak aurrez kodetua izan behar du eta, haren baitako hitz guztien inbentarioak, finkatua. Horri guztiari erantsiz, esan dezagun idazkerak alde aurretik pentsatua izan behar duela nolabait ere; ahozkotasuna, aldiz, askoz bat-batekoagoa da. Hortik aurrera, hizkuntzaren forma zuzen bilakatzen da idazkera, ahozko hizkuntza ez bezala, hau tolerantetagoa baita gizabanakoen nahiz taldeen desberdintasunekiko. Idazkera agertu zenetik, literatura- eta zientzia-ekoizpenak era idatzian sortu dira eta, inprentaren bidez, liburuetan bildu. Hala, mendebaldeko kulturaren, jarraipenaren eta aurrerapenaren tresna goren bilakatu dira.

Globalizaziorantz bideratzen duten teknika modernoek errotiko aldakuntza eragiten diote egoera honi. Telefonoa eta diskoa asmatu zirenetik, gizakiaren ahotsa edozein distantziatar iritsi eta denboran nahi adina luzaraz daiteke. Horrela, apaldu egiten da letra idatziaren sona. Gure garaikide askok irrati eta telebista bidez ahozko informazio gehiago jasotzen dute, egunkari eta liburuetatik baino. Horren ondorioz, idatzizko hizkuntzaren sona jaitsi egiten da, bai eta, horrekin batera, idatzizko adierazpenak eredutzat hartu beharreko goragoko maila duenaren ustea ere.

Besteak beste, hitz eta esamolde zatar eta lizunen kasua adibide esanguratsua izan liteke. Lehen, ahozko hizkuntzan gutxi-asko onartuak ziren, baina idatzizkoan debekatuak. Are orokortuagoa zegoen irizpide hori hizkuntza jasoan. Hain zen zorrotza debekua, non hizkuntzen katalogoetan –hiztegiatan, alegia– zein Akademiaren

Hiztegietan bertan ere, ez baitziren azaldu ere egiten. Gaur, ordea, ahozko hizkuntzatik idatzizkora pasa da, egunkarietara eta liburuetara.

Oraintxe esan dudanari eransterik badago, ahozko hizkuntzaren esparru hori hedatu bada ere, informatikak aukera berriak ireki dizkiola idazkerari, eta hori egia biribila da. Lehenik, ordenagailuak eta, ondoren, Internet sarea sartzeak eta zabaltzeak aukerak ugaltu ditu, nola idatzizko informazioa sortu eta elkartrukatzeko, hala informazio-iturri anitzetara iristeko; eta guztia hizkuntza idatzian.

Baina, baliabide informatikoen bidezko informazio trukeak euskarria paper idatzia zenean baino gutxiago zaindutako hizkuntza erabiltzen du. Adibide bat besterik ez da behar hori erakusteko: mezu elektronikoak eta eskutitzak alderatzea. Jende askorentzat, belaunaldietan zehar eskutitzak idaztea eguneroko jarduera bat zen, eta arreta handia jartzen zitzaien. Estilo epistolarrak bere arauak zituen eta, planteamendu bat eskatzeaz gainera, idazkera ere zaindu beharrekoa zen. Hartzaileak, bere aldetik, behin eta berriz eta kontuz irakurtzen zituen eta sarritan gorde ere egiten zituen. Bikote baten harremanean, garrantzizko alderdia zen eskutitzen bidezko harremana eta, harremana hautsiz gero, itzuli egin behar ziren jasotako gutunak. Mezu elektronikoak askoz ere bat-batekoagoak dira, idazkeran gutxiago zainduak, aho-hizkuntzari lotuagoak eta, jakina, motzagoak. Ia bat-bateko erantzuna jasotzen dute askotan eta gertuago daude telefono bidezko hartu-emanetik, gutunen bidezkotik baino.

Pertsona askorentzat, zuzenketa ortografikoari dagokionez, mezu elektroniko laxoagoa da eskutitza baino. Hori, mezuaren naturaltasunarekin eta informaltasunarekin lot daiteke, bai eta zeregin hori beteko duen zuzentzaile ortografikoa izateak eragiten duen ezaxolarekin ere. Laxotasun honek puntu gorena harrapatzen du telefono mugikorretatik idatzi eta bidalitako mezuetan. Ortografia errazteaz gainera, kode berezi bat eratzeraren iristen diren laburtzapenak eta sinboloak sartzen dira, nahiz eta erabiltzaile bakoitzak bere erara moldatzen duen kode malgua izan. Izan ere, mezuen zeinu-kopuruen laburtzapen modu horiek guztiek arrazoi ekonomiko bat dute, bistakoa denez; baina, gainera, horrek berekin dakar belaunaldi gazteen jarrera askeagoa, ez bakarrik arau ortografikoen aurrean, baita joskera arauetan ere.

Baina Internet sortu eta hain azkar garatzeak beste ondorio bat ere izan du hizkuntza idatziaren gain, aipatu berriak ditudan naturaltasuna eta ezaxola baino askoz ere garrantzitsuagoa: informazio-iturritzat liburua ordezkatzea.

Gaur egun, eztabaida handia sortu da ohiko bideetatik argitaratu diren testuak Interneten erreproduzitzeko aukeraren inguruan, eta askotariko aurreikuspenak daude, etorkizunean Internet bidezko argitalpenak paperezko argitalpena ordezkatuko duen ala ez esaten dutenak. Baina, orain aipatu nahi dudana, askoz ere esanguratsuagoa da, nire ustez. Inprenta asmatu zenetik, gure kultura eskuratutako jakinduria gordetzen duten liburuetan oinarritu izan da, eta, aldi berean, horietan oinarritu da irakaskuntza. Era berean, liburu horiei esker, gizabanakoek liburu horietara jo zezaketen kultura orokorra zabaltzeko edo zaletasunei zein espezialitateei buruzko gaietan sakontzeko. Internet izanez gero, ez da liburuetara jo beharrik, bilatzaile bitartez edo bide sofistikatuetatik informazioa lortzeko. Espezializazioari begira, abantailak dituela bistakoa da, bistakoa den bezala gure kultur tradizioan oinarri izan diren kultur sustrai bateratuak alferrikakoak bilakatzen dituela horrek.

Hizkuntzak Espainiako testuinguruan: katalana/valentziera, galiziera eta euskara

Nahiz eta, ikusi dugun bezala, globalizazio prozesuaren ondorioz, ingelesa izan mesede gehien jaso izan duen hizkuntza, eta komunikaziorako hizkuntza nagusi bilakatu dena, gaztelaniari ere mesede egin dio maila batean prozesu horrek, herrialde askotan gora egin baitu bigarren hizkuntza bezala ikasten ari direnen kopuruak. Zenbait autonomia erkidegotako berariazko hizkuntzei dagokienez (katalana/valentziera, galiziera, euskara), horrela defini daiteke egoera, nire ustez:

Globalizazio prozesuak mehatxaturik diruditen hainbat hizkuntza egon arren, hauen biziraupena guztiz ziurtaturik dago. Kasu bakoitzean, hiztun-kopurua handi samar bat duten hizkuntzak dira, eta, proportzio handi batean, beren hizkuntzaren etorkizunarekin solidarizatzen eta ondorengoei transmititzen dietenak; irakaspena eta erabilera publikoa ziurtatzeko egitura politikoak dituztenak. Are gehiago, badute ezaugarri bat gaur egun hizkuntza baten bizitasunaren garrantzizko adierazle dena: denek dituzte askotariko programa eta aplikazio informatikoak, bai eta Interneten presentzia ere. Baina, konturatu behar da, behin biziraupena sendotu ostean, globalizazio-prozesuak presio bikoitz baten mende jartzen dituela: batetik, gaztelaniaz jakiteaz gainera, nazioarteko komunikaziorako hizkuntza gisa ingelesa jakin behar izatea; eta, bestetik, lurralde batzuetara beste hizkuntza batean mintzo diren etorkin asko etorri izatea. Bi gertakari horiek erronka gogorak eragingo dizkio bakoitzaren hezkuntza-sistemari.